

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

8895

8895

3/2007 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako zerga araudia ondoko hauek xedatutako aldaketetara egokitzen da: alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa eta airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 34/2007 Legea.

Alderdi politikoko finantzatzeari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa eta Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legea onartu eta argitaratzeak aldaketak ekarri dizkio Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak arautzeko araudiari.

Uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa salbuespen kasua gehitzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergan, alderdi politikoen euren xede berezia betetzeko diru laguntza lortzeko egindako zerbitzuei eta emandako ondasunei eta euren onurarako bakarrik egindako erakustaldiei dagokienez.

Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak zenbait aldaketa dakar Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezian.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartua) 26. eta 33. artikuluetan ezartzen duenez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak itunpeko tributuek dira eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen menpe egongo dira.

Horrek guztiak beharrezkoa egiten du aipatutako arauetan zerga horien inguruan sartu diren aldaketak Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudira ekartzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiari aitortzen dizkieten aginpideak erabiliz, premiazko arrazoiengatik, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aldaketa.

2007ko uztailaren 6ko ondoreekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluaen Bat paragrafoari 27 zenbakia gehitu zaio, horratx:

“27. alderdi politikoen euren xede berezia betetzeko diru laguntza lortzeko egindako zerbitzuei eta emandako ondasunei eta euren onurarako bakarrik egindako erakustaldiei dagokienez.”

2. artikulua.- Zerga Berezien aldaketa.

Hona hemen Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-Premiamenduzko Araugintzako Dekretuan egin beharreko aldaketak, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituztenak:

Bat. 70. artikuluaen 1. eta 2. atalak honela geratzen dira idatzita:

DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2007, del Consejo de Diputados de 28 de diciembre, que adapta la normativa tributaria alavesa a los cambios establecidos por la Ley Orgánica 8/2007, de 4 de julio, sobre financiación de los partidos políticos, y por la Ley 34/2007, de 15 de noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera.

La aprobación y publicación, por un lado, de la Ley Orgánica 8/2007, de 4 de julio, sobre financiación de los partidos políticos, y, por otro, de la Ley 34/2007, de 15 de noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera, ha supuesto la introducción de modificaciones en la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido y de los Impuestos Especiales.

La primera de ellas, la Ley Orgánica 8/2007, de 4 de julio, adiciona un supuesto de exención en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en relación con las prestaciones de servicios y las entregas de bienes realizadas por los partidos políticos con motivo de manifestaciones destinadas a reportarles un apoyo financiero para el cumplimiento de su finalidad específica y organizadas en su exclusivo beneficio.

Por su parte, la Ley 34/2007, de 15 de noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera, supone la introducción de determinadas modificaciones en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, en sus artículos 26 y 33 establece que tanto el Impuesto sobre el Valor Añadido, como los Impuestos Especiales, tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Ello exige incorporar a la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava las modificaciones incluidas en las referidas normas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

Artículo 1.- Modificación del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Con efectos desde el 6 de julio de 2007 se añade un número 27º. al apartado Uno del artículo 20 al Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, que queda redactado en los siguientes términos:

“27º. Las prestaciones de servicios y las entregas de bienes realizadas por los partidos políticos con motivo de manifestaciones destinadas a reportarles un apoyo financiero para el cumplimiento de su finalidad específica y organizadas en su exclusivo beneficio.”

Artículo 2.- Modificación de los Impuestos Especiales.

Con efectos desde el 1 de enero de 2008 se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales:

Uno. Los apartados 1 y 2 del artículo 70 quedan redactados en los siguientes términos:

“1. Ondokoak izango dira zergapean:

a) Berez mugitzeko motorea duten ibilgailu beri edo erabilien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, ondokoak izan ezik:

1.- N1, N2 eta N3 kategorietara bildutako ibilgailuak (1970eko otsailaren 6ko Kontseiluaren 70/156/CEE Zuzentarauaren –Batasuneko estatuek motordun ibilgailuen eta atoiaren homologazioari buruz duten legeriak egokitzearen gainekoa– ko II. Eranskinaren 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen testua), baldin eta N1 kategoriakoak direnean, eragin handia badute ekonomi jardueraren egikaritzan. Kontrako frogarik denean izan ezik, ekonomi jardueran eragina handia izango da, noiz eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 95. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, subjektu pasiboak eskubidea duenean ibilgailua eskuratu edo inportatzeagatik jasaniko edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten %50 gutxienez kentzeko, eta ondore horietarako, kenketarako eskubidea ezingo da murriztu, arau horretara bildutako arauen ondorioz.

Dena den, zergapekoa izango da ibilgailu horien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, etxebizitza izateko egokitzen direnean.

2.- Testu berean (aurreko 1 zenbakiko paragrafoan) ezarritako M2 eta M3 kategorietara bildutako ibilgailuak eta tranbiak.

3.- Objektiboki, industri, merkataritza, nekazaritza, osasun edo zientzia erabilera baino ez dutenak, baldin eta zerga Administrazioak homologatu baditu serie modeloak edo ibilgailuak, banan-banan. Ondore horietarako, erabilera horiek bakarrik dituzte eserleku bi dauzkaten ibilgailuek (gidaria eta laguntzailea), eta ezingo dute eserleku gehigarriak eduki, ez eta beroriek instalatzeko finkagailurik ere, eta kargarako lekuan ez da alboetako leihorik egongo eta leku hori barneko bolumenaren %50 baino gehiago izan behar da.

4.- Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak.

5.- Motozikletak eta kuatrizikloak ez diren hiru gurpileko ibilgailuak, baldin eta, kasu biotan, zilindrada 250 zentimetro kubikotik gorakoa ez bada, barne errektuzko motoreak direnean, eta 16 kW edo hortik beherako gehienezko potentzia badute, gainerako motoretan.

6.- Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak.

7.- Ibilgailu bereziak, 75.1. artikuluko 4. epigrafean definitutako “quad” motako ibilgailuak ez badira.

8.- Ibilgailu misto moldagarriak, baldin eta karrozeriako sabaiaren egitura zatitik behegainera arteko guztizko garaiera 1.800 milimetrotik gorakoa bada, lur orotarako ibilgailuak ez badira eta eragina badute ekonomi jardueran. Kontrako frogarik denean izan ezik, ekonomi jardueran eragina handia izango da, noiz eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 95. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, subjektu pasiboak eskubidea duenean ibilgailua eskuratu edo inportatzeagatik jasaniko edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten %50 gutxienez kentzeko, eta ondore horietarako, kenketarako eskubidea ezingo da murriztu, arau horretara bildutako arauen ondorioz.

Dena den, zergapekoa izango da ibilgailu horien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, etxebizitza izateko egokitzen direnean.

9.- Indar armatuek, Estatuko, autonomi erkidegoetako eta udal-letako segurtasun indar eta gorputzek, eta defentsa, zaintza eta segurtasunerako aduana zainatzaileek erabili behar dituztenak.

10.- Anbulantziak eta autobideak eta errepideak zaintzeko eta bertan sorospen lanak egiteko baino ezin diren ibilgailuak.

“1. Estarán sujetas al Impuesto:

a) La primera matriculación definitiva en España de vehículos, nuevos o usados, provistos de motor para su propulsión, excepto la de los que se citan a continuación:

1.º Los vehículos comprendidos en las categorías N1, N2 y N3 establecidas en el texto vigente al día 30 de junio de 2007 del Anexo II de la Directiva 70/156/CEE, del Consejo, de 6 de febrero de 1970, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre la homologación de vehículos a motor y de sus remolques, siempre que, cuando se trate de los comprendidos en la categoría N1, se afecten significativamente al ejercicio de una actividad económica. La afectación a una actividad económica se presumirá significativa, salvo prueba en contrario, cuando, conforme a lo previsto en el artículo 95 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, el sujeto pasivo tuviera derecho a deducirse al menos el 50 por 100 de las cuotas del Impuesto sobre el Valor Añadido soportadas o satisfechas con ocasión de la adquisición o importación del vehículo, sin que a estos efectos sea relevante la aplicación de cualquier otra restricción en el derecho a la deducción derivada de las normas contenidas en dicha Norma.

No obstante, estará sujeta al impuesto la primera matriculación definitiva en España de estos vehículos cuando se acondicionen para ser utilizados como vivienda.

2.º Los vehículos comprendidos en las categorías M2 y M3 establecidas en el mismo texto al que se refiere el número 1.º anterior y los tranvías.

3.º Los que, objetivamente considerados, sean de exclusiva aplicación industrial, comercial, agraria, clínica o científica, siempre que sus modelos de serie o los vehículos individualmente hubieran sido debidamente homologados por la Administración tributaria. A estos efectos, se considerará que tienen exclusivamente alguna de estas aplicaciones los vehículos que dispongan únicamente de dos asientos (para el conductor y el ayudante), en ningún caso posean asientos adicionales ni anclajes que permitan su instalación y el espacio destinado a la carga no goce de visibilidad lateral y sea superior al 50 por 100 del volumen interior.

4.º Los ciclomotores de dos o tres ruedas.

5.º Las motocicletas y los vehículos de tres ruedas que no sean cuatriciclos siempre que, en ambos casos, su cilindrada no exceda de 250 centímetros cúbicos, si se trata de motores de combustión interna, o su potencia máxima neta no exceda de 16 kw, en el resto de motores.

6.º Los vehículos para personas con movilidad reducida.

7.º Los vehículos especiales, siempre que no se trate de los vehículos tipo “quad” definidos en el epígrafe 4.º del artículo 75.1.

8.º Los vehículos mixtos adaptables cuya altura total desde la parte estructural del techo de la carrocería hasta el suelo sea superior a 1.800 milímetros, siempre que no sean vehículos todo terreno y siempre que se afecten significativamente al ejercicio de una actividad económica. La afectación a una actividad económica se presumirá significativa, salvo prueba en contrario, cuando, conforme a lo previsto en el artículo 95 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, el sujeto pasivo tuviera derecho a deducirse al menos el 50 por 100 de las cuotas del Impuesto sobre el Valor Añadido soportadas o satisfechas con ocasión de la adquisición o importación del vehículo, sin que a estos efectos sea relevante la aplicación de cualquier otra restricción en el derecho a la deducción derivada de las normas contenidas en dicha Norma.

No obstante, estará sujeta al Impuesto la primera matriculación definitiva en España de estos vehículos cuando se acondicionen para ser utilizados como vivienda.

9.º Los destinados a ser utilizados por las Fuerzas Armadas, por los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado, de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones Locales, así como por el Resguardo Aduanero, en funciones de defensa, vigilancia y seguridad.

10.º Las ambulancias y los vehículos que, por sus características, no permitan otra finalidad o utilización que la relativa a la vigilancia y socorro en autopistas y carreteras.

b) Aisierako edo itsas kirolerako ontzi eta itsasontzi berri edo erabiliak itsasontzien matrikulazio erregistro ohiko edo berezian lehenengoz matrikulatzea, baldin eta gehieneko luzera 7,5 metrokoa baino handiagoa bada, edo, erregistro horretan ezin dbadira matrikulatu, kasuan kasuko kirol federazioaren erregistroan eginiko lehenengo matrikulazioa.

Luzera edozein izanda ere, zergapekoa izango da 75.1. artikuluko 4. epigrafean definitutako itsas motorren lehenengo matrikulazioa.

Ondokoak dira aisierako edo itsas kirolerako ontzi eta itsasontziak:

1.- Itsasontzien matrikulazio erregistro ohikoaren edo bereziaren seigarren edo zazpigarren zerrendan edo kasuan kasuko kirol federazioaren erregistroan inskribatzen diren itsasontziak.

2.- Aurreko 1 zenbakiko paragrafoan aipatutakoak ez diren itsasontziak, aisierako nabigazio pribaturakoak, araugintzako dekretu honen 4. artikuluko 13. paragrafoan definitu legez.

c) Hegazkinak, turismo hegazkinak eta aireontzi berri eta erabiliak aireontzien erregistroan lehenengoz matrikulatzea, baldin eta motore mekanikoak badituzte, jarraian aipatutakoak izan ezik:

1.- Ezaugarri teknikoak direla eta, nekazaritza edo basogintzarako zein gaixoak eta zaurituak garraiatzeko baino ez diren aireontziak.

2.- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako ziurtagiriaren arabera, aireartzean, gehieneko pisua 1.550 kilogramokoa baino handiagoa ez bada.

d) Zirkulazio zergapekoa edo Espainian garraibideak erabiltzearen zergapekoa (aurreko paragrafoetan aipatuak) izango da, noiz eta ez da eskatu behin betiko matrikulazioa Espainian, araugintzako dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorrira, Espainian erabiltzen hasi baino 30 egun lehenago. Epe hori 60 eguneko izango da, garraibideok erabiltzen badira titularra ohiko bizitokia Espainiara lekualdatzearen ondorioz, araugintzako dekretu honen 71. artikuluko 1.) idatz-zatian jasotako kenketa aplikada badaiteke.

Ondore horietarako, ondokoak hartuko dira Espainian zirkulatzeko edo erabiltzeko hasiera datatzat:

1.- Aldi baterako inportazio edo turismo matrikulako araubidepeko garraibideak badira, araubide horiek utzi edo amaitzeko data.

2.- Gainerako kasuetan, Espainian garraibidea sartzeko data. Data hori argiro agertzen ez bada, erabiltzeko hasierako data ondoko bien ondorengoa dena:

- Garraibidearen eskuratzeko data.

- Interesduna Espainian egotila denetik edo Espainian dagoen establezimenduen titularra denetik.

2. a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Arautegi Orokorren II. eranskinaren 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen bertsioan jasotako definizio eta kategorien arabera zehaztu eta mugatuko dira Goiko 1.a) idatz-zatian eta 75. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako ibilgailuak.

b) Araugintzako dekretu honen ondoretarako, berritatzeko joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera halakotzat jotzen direnak.

c) 1.a) idatz-zatiaren 9. eta 10. paragrafoetan aipatutako kasuak –zergatik kanpo geratzeko aplikatzeko, aldeztu aurretik, zerga Administrazioak halaxe aintzatetsi behar du arautegiz zehaztatutako moduan.

Zergatik kanpo uzteko gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da zerga Administrazioaren adierazpena aurkeztea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztatutako lekuan, eran, epean eta inprimaketan. Zerga Administrazioak homologatutako ibilgailuak paragrafo honetan xedatutakotik kanpo geratzen dira.

b) La primera matriculación de embarcaciones y buques de recreo o de deportes náuticos, nuevos o usados, que tengan más de 7,5 metros de eslora máxima, en el registro de matrícula de buques, ordinario o especial o, en caso de no ser inscribibles en dicho registro, la primera matriculación en el registro de la correspondiente Federación deportiva.

Estará sujeta en todo caso, cualquiera que sea su eslora, la primera matriculación de las motos náuticas definidas en el epígrafe 4.º del artículo 75.1.

Tienen la consideración de embarcaciones y buques de recreo o de deportes náuticos:

1.º Las embarcaciones que se inscriban en las listas sexta o séptima del registro de matrícula de buques, ordinario o especial o, en su caso, en el registro de la correspondiente Federación deportiva.

2.º Las embarcaciones distintas de las citadas en el párrafo 1.º anterior que se destinen a la navegación privada de recreo, tal como se define en el apartado 13 del artículo 4 de este Decreto Normativo.

c) La primera matriculación de aviones, avionetas y demás aeronaves, nuevas o usadas, provistas de motor mecánico, en el Registro de Aeronaves, excepto la de las que se citan a continuación:

1.º Las aeronaves que, por sus características técnicas, sólo puedan destinarse a trabajos agrícolas o forestales o al traslado de enfermos y heridos.

2.º Las aeronaves cuyo peso máximo al despegue no exceda de 1.550 kilogramos según certificado expedido por la Dirección General de Aviación Civil.

d) Estará sujeta al Impuesto la circulación o utilización en España de los medios de transporte a que se refieren los apartados anteriores, cuando no se haya solicitado su matriculación definitiva en España conforme a lo previsto en la Disposición Adicional Primera de este Decreto Normativo, dentro del plazo de los 30 días siguientes al inicio de su utilización en España. Este plazo se extenderá a 60 días cuando se trate de medios de transporte que se utilicen en España como consecuencia del traslado de la residencia habitual de su titular al territorio español siempre que resulte de aplicación la exención contemplada en el apartado 1.) del artículo 71 del presente Decreto Normativo.

A estos efectos, se considerarán como fechas de inicio de su circulación o utilización en España las siguientes:

1.º Si se trata de medios de transporte que han estado acogidos a los regímenes de importación temporal o de matrícula turística, la fecha de abandono o extinción de dichos regímenes.

2.º En el resto de los casos, la fecha de la introducción del medio de transporte en España. Si dicha fecha no constase fehacientemente, se considerará como fecha de inicio de su utilización la que resulte ser posterior de las dos siguientes:

- Fecha de adquisición del medio de transporte.

- Fecha desde la cual se considera al interesado residente en España o titular de un establecimiento situado en España.

2. a) La delimitación y determinación de los vehículos a que se refieren el apartado 1.a) anterior y el apartado 1 del artículo 75 se efectuará, en lo no previsto expresamente en dichos preceptos, con arreglo a las definiciones y categorías contenidas en la versión vigente al día 30 de junio de 2007 del Anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre.

b) A efectos de este Decreto Normativo, se considerarán nuevos aquellos medios de transporte que tengan tal consideración conforme a lo establecido en el Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

c) La aplicación de los supuestos de no sujeción a que se refieren los números 9.º y 10.º del apartado 1.a) anterior, estará condicionada a su previo reconocimiento por la Administración tributaria en la forma que se determine reglamentariamente.

En los demás supuestos de no sujeción será necesario presentar una declaración ante la Administración tributaria en el lugar, forma, plazo e impresos que determine el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos. Se exceptúan de lo previsto en este párrafo los vehículos homologados por la Administración tributaria."

Bi. 75. artikulua honelaxe geratzen da:

“75. artikulua.- Zerga tasak.

1. Aplikatu beharreko zerga tasak zehazteko, ondoko epigrafeak ezartzen dira:

1. epigrafea.

a) Legez 120 g/km CO₂ baino gehiago ez botatzea, “quad” ibilgailuak izan ezik.

b) Barne errakuntzakoa ez den motore bakarra duten ibilgailuak, “quad” motakoa izan ezik.

2. epigrafea.

a) 120 g/km-tik 160ra bitarteko CO₂ legezko isurketa, “quad” ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea.

a) 160 g/km-tik 200era bitarteko CO₂ legezko isurketa, “quad” ibilgailuak izan ezik.

b) 1. 2. edo 4. epigrafeetara bildu ez diren garraiobideak.

4. epigrafea.

a) Legez 200 g/km CO₂ edo gehiago botatzea, “quad” ibilgailuak izan ezik.

b) CO₂, isurketa neurtu behar zaien ibilgailuak, isurketa ez denean egiaztatzen.

c) N2 eta N3 kategorietara bildutako ibilgailuak, bizitegiarako egokituak.

d) “Quad” motako ibilgailuak. “Quad” ibilgailuak lau gurgil edo gehiago dauka; eskulekuaren bidez gidatzen da, eta gidaria zangalatrau doa eserita; errepidetik kanpo erabiltzeko trakzio sistema dauka.

e) Itsas motorrak. “Itsas motorra” motoreak bultzatutako itsasontzia da, pertsona batek edo gehiagok gidatu ahal dute eserita, zutik edo belaniko, kaskoaren mugen gainean, eta ez barruan.

2. Ondokoak dira zerga tasak:

1. epigrafea. 100eko 0

2. epigrafea. 100eko 4,75

3. epigrafea. 100eko 9,75

4. epigrafea. 100eko 14,75

3. Aplikatu beharreko zerga tasa sortzapenaren unean indarrean dagoena izango da.

4. Garraiobidearen lehenengo behin betiko matrikulazioa egin denean Ceutan eta Melillan, eta behin betiko inportatu denean penintsulara eta Balear zein Kanariar uharteetara, zerga likidatuko zaie 2 zenbakiko paragrafoan adierazitako tasak kasuan kasuko ondorengo koefizienteak biderkatzearen ondoriozko zerga tasei.

a) Lehenengo behin betiko matrikulazioaren ondorengo lehenengo urtean egiten bada behin betiko inportazioa: 1,00.

b) Lehenengo behin betiko matrikulazioaren ondorengo bigarren urtean egiten bada behin betiko inportazioa: 0,67.

b) Lehenengo behin betiko matrikulazioaren ondorengo hirugarren eta laugarren urtean egiten bada behin betiko inportazioa: 0,42.

Paragrafo honetan xedatutako kasuetan, zerga tasa garraiobideak aduanan duen balioa izango da.

5. Zerga Kanariar uharteetan sorrarazita, garraiobidea behin betiko sartzen denean penintsulara eta Balear uharteetara, lehenengo behin betiko matrikulazioaren ondorengo lehenengo urtean, titularrak autolikidatu behar du eta Kanariar uharteetako autonomi erkidegoan aplikatu beharreko tasaren eta Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharreko zerga tasaren arteko aldeari dagozkion kuotak ordaindu; izan ere, zerga oinarria garraiobideak penintsulara eta Balear uharteetara sartzean duen balioa izango da.

Atal honetako aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko, noiz eta sartu den garraiobideari dagokionez zerga eskatu denean dagoeneko Kanariar uharteetan, eta zerga tasa ez denean Arabako

Dos. El artículo 75 queda redactado en los siguientes términos: “Artículo 75. Tipos impositivos.

1. Para la determinación de los tipos impositivos aplicables se establecen los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.º

a) Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO₂ no sean superiores a 120 g/km, con excepción de los vehículos tipo “quad”.

b) Vehículos provistos de un solo motor que no sea de combustión interna, con excepción de los vehículos tipo “quad”.

Epígrafe 2.º

Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO₂ sean superiores a 120 g/km y sean inferiores a 160 g/km, con excepción de los vehículos tipo “quad”.

Epígrafe 3.º

a) Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO₂ no sean inferiores a 160 g/km y sean inferiores a 200 g/km, con excepción de los vehículos tipo “quad”.

b) Medios de transporte no comprendidos en los epígrafes 1.º, 2.º ó 4.º

Epígrafe 4.º

a) Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO₂ sean iguales o superiores a 200 g/km, con excepción de los vehículos tipo “quad”.

b) Vehículos respecto de los que sea exigible la medición de sus emisiones de CO₂, cuando éstas no se acrediten.

c) Vehículos comprendidos en las categorías N2 y N3 acondicionados como vivienda.

d) Vehículos tipo “quad”. Se entiende por vehículo tipo “quad” el vehículo de cuatro o más ruedas, con sistema de dirección mediante manillar en el que el conductor va sentado a horcajadas y que está dotado de un sistema de tracción adecuado a un uso fuera de carretera.

e) Motos náuticas. Se entiende por “moto náutica” la embarcación propulsada por un motor y proyectada para ser manejada por una o más personas sentadas, de pie o de rodillas, sobre los límites de un casco y no dentro de él.

2. Los tipos impositivos aplicables serán los siguientes:

Epígrafe 1.º: 0 por 100

Epígrafe 2.º: 4,75 por 100

Epígrafe 3.º: 9,75 por 100

Epígrafe 4.º: 14,75 por 100

3. El tipo impositivo aplicable será el vigente en el momento del devengo.

4. Cuando el medio de transporte cuya primera matriculación definitiva haya tenido lugar en Ceuta y Melilla sea objeto de importación definitiva en la península e Islas Baleares o en Canarias, se liquidará el Impuesto a los tipos impositivos resultantes de multiplicar los tipos indicados en el apartado 2 anterior, según proceda, por los coeficientes siguientes:

a) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del primer año siguiente a la primera matriculación definitiva: 1,00.

b) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del segundo año siguiente a la primera matriculación definitiva: 0,67.

c) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del tercer o cuarto año siguientes a la primera matriculación definitiva: 0,42.

En los casos previstos en este apartado la base imponible estará constituida por el valor en aduana del medio de transporte.

5. Cuando el medio de transporte por el que se haya devengado el Impuesto en Canarias sea objeto de introducción, con carácter definitivo, en la península e Islas Baleares, dentro del primer año siguiente a la primera matriculación definitiva, el titular deberá auto-liquidar e ingresar las cuotas correspondientes a la diferencia entre el tipo impositivo aplicable en la Comunidad Autónoma de Canarias y el tipo que corresponda aplicar en el Territorio Histórico de Álava, sobre una base imponible que estará constituida por el valor del medio de transporte en el momento de la introducción.

Lo dispuesto en el párrafo anterior de este apartado no será aplicable cuando, en relación con el medio de transporte objeto de la introducción, ya se hubiera exigido el impuesto en Canarias con apli-

Lurralde Historikoan garraibide horretarako sarreran eskatzen dena baino txikiagoa.

6. Artikulu honetako 4. eta 5. paragrafoen arabera likidazioak eta autoliquidazioak ezingo dira eskatu garraibidearen titularraren bizitokia behin betiko inportazioa edo behin betiko sarrera gertatzen den tokira aldatzen bada.

Idatz-zati honetan xedatutakoa aplikatzeak honako baldintzak bete behar izatea dakar:

a) Interesdunak ohiko bizitegia eduki behar izan dute Ceuta eta Melillan edo Kanariar uharteetan lekualdaketaren aurreko elkarren segidako hamabi hilabeteetan gutxienez.

b) Garraibideak Ceuta eta Melillan edo Kanariar uharteetan dauden zerga ohiko baldintzetan eskuratu behar izan dira, eta lurralde horietatik irteteen ezin izan dira izan kenketa edo itzulketaren onuradun.

c) Interesdunak sei hilabetez erabili behar izan ditu garraibideak antzinako bizitokian, bizitoki hori utzi aurretik.

d) Atal honetan aipatutako garraibideak inportatu edo sartu eta ondorengo hamabi hilabeteetan ezingo dira eskualdatu. Betekizun hori ez betetzeak kasuan kasuko likidazioa edo autoliquidazioa ekarriko du, ez betetze hori gertatu zen uneari dagokionez.

7. CO2 isurketa ofizialak ibilgailuaren ekoizleak edo inportatzaileak jaulkitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, salbu eta isurketok ikuskapen teknikoko txartelan edo ibilgailu zehatzerako jaulkitako beste edozein agiri ofizialtan agertzen direnean.”

Hiru. “Kuotaren kenketa” 76. artikulua indargabetu da.

Lau. 77. artikulua honelaxe geratzen da:

“77. artikulua. Likidazioa eta zerga ordainketa.

1. Subjektu pasiboak autoliquidatu eta ordaindu beharko du zerga, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak agindutako toki, modu, epe eta inprimaketan.

2. Zerga Administrazioak eman behar dio onespina autoliquidazioari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak agindutako moduan, organo eskudunaren aurrean behin betiko matrikulatu baino lehen.

Autoliquidaziotik ateratzen den kuota txikiagoa denean Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartutako salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz aterako litzatekeen kuota baino, zerga Administrazioak, onspina eman baino lehen, zerga oinarri gisa jarritako zenbatekoa edo balioa egiaztatuko du Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Batez besteko prezioak izango dira interesatuak zerga Administrazioari oniritzia eskatzen dionean indarrean daudenak. Aitorpenean jasotako zenbatekoa edo balioa egiaztatu ahal izango da, era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak autoliquidazioan aipatutako ibilgailurako onartutako salmentako batez besteko preziorik ez dagoenean.

Gehenez 30 egun izango dira aipatu balioa egiaztatzeko, ibilgailu zerga Administrazioaren eskura jartzen denetik aurrera. Behin aipatu epea igarota zenbatekoa edo balioa egiaztatu gabe, behin behineko onartu egingo da zergapekoak aitortutako balioa. Epea zenbatzeko, aplikaziozkoa izango da otsailaren 8ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorak, 100. artikuluen 2. apartatuan jasotakoa. Behin-behineko onspina eman ahal izango da, aurretik zenbatekoa edo balioa egiaztatu gabe, autoliquidazioa aurkeztean.

cación de un tipo impositivo no inferior al vigente en el Territorio Histórico de Álava para dicho medio de transporte en el momento de la introducción.

6. Las liquidaciones y autoliquidaciones que procedan en virtud de los apartados 4 y 5 de este artículo no serán exigibles en los casos de traslado de la residencia del titular del medio de transporte al territorio en el que tienen lugar, según el caso, la importación definitiva o la introducción definitiva.

La aplicación de lo dispuesto en este apartado está condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Los interesados deberán haber tenido su residencia habitual en Ceuta y Melilla o en Canarias, según el caso, al menos durante los doce meses consecutivos anteriores al traslado.

b) Los medios de transporte deberán haber sido adquiridos en las condiciones normales de tributación existentes, según el caso, en Ceuta y Melilla o en Canarias, y no se deberán haber beneficiado de ninguna exención o devolución con ocasión de su salida de dichos territorios.

c) Los medios de transporte deberán haber sido utilizados por el interesado en su antigua residencia durante un período mínimo de seis meses antes de haber abandonado dicha residencia.

d) Los medios de transporte a que se refiere el presente apartado no deberán ser transmitidos durante el plazo de los doce meses posteriores a la importación o introducción. El incumplimiento de este requisito determinará la práctica de la correspondiente liquidación o autoliquidación con referencia al momento en que se produjera dicho incumplimiento.

7. Las emisiones oficiales de CO2 se acreditarán, en su caso, por medio de un certificado expedido al efecto por el fabricante o importador del vehículo excepto en los casos en que dichas emisiones consten en la tarjeta de inspección técnica o en cualquier otro documento de carácter oficial expedido individualmente respecto del vehículo de que se trate.”

Tres. Queda derogado el artículo 76 “Deducción de la cuota”.

Cuatro. El artículo 77 queda redactado en los siguientes términos: “Artículo 77. Liquidación y pago del Impuesto.

1. El Impuesto deberá ser objeto de autoliquidación e ingreso por el sujeto pasivo en el lugar, forma, plazos e impresos que establezca el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

2. La autoliquidación deberá ser visada por la Administración tributaria, en la forma que establezca el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, con carácter previo a la matriculación definitiva ante el órgano competente.

Cuando la cuota resultante de la autoliquidación sea inferior a la que resultaría de aplicar los precios medios de venta aprobados por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, la Administración tributaria, con carácter previo al otorgamiento del visado, podrá proceder a la comprobación del importe o valor consignado como base imponible de acuerdo con lo previsto en el artículo 56 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava. Los precios medios a considerar serán los vigentes en el momento en que el interesado solicite el visado ante la Administración tributaria. También podrá procederse a la comprobación previa del importe o valor declarado cuando no exista precio medio de venta aprobado por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para el medio de transporte al que se refiera la autoliquidación presentada.

El plazo máximo para efectuar la comprobación será de 30 días contados a partir de la puesta a disposición de la documentación del medio de transporte ante la Administración tributaria. El transcurso del citado plazo sin que se haya realizado la comprobación determinará el otorgamiento provisional del visado sobre la base del importe o valor declarado por el obligado tributario. A efectos del cómputo del plazo resultará de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 100 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava. El visado podrá otorgarse con carácter provisional, sin previa comprobación del importe o valor, en el momento de la presentación de la autoliquidación.

Nahiz eta behin-behineko onespena eman, harrezkero Administrazioak autolikidazioa egiaztatu ahal izango du.

3. Garraio bidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zerga ordaindu dela egiaztatu behar da edo, hala denean, zergapekoa ez dela zein salbuetsita dagoela.

Lau. Indargabeturik geratu dira bigarren xedapen iragankorren 2. eta 3. paragrafoak, eta 1. paragrafoko "1" erreferentzia desagerrarazi da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2008ko urtarrilaren 1etik indargabetuta dago urriaren 28ko 17/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 3. artikulua. Dekretu horren bidez, Arabako zerga araudian urriaren 8ko 39/1997 Legeak (PREVER Programa onartzen du) jasotako zenbait manu txertatzen da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean izatea.

Xedapen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak bere artikuluetan xedatutakoak.

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezeztatu dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrira.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 28a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

64

8.804 zenbakiko iragarkiko hutsak zuzentzea. Iragarki hori abenduaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren 78/2007 Foru Dekretuari buruzkoa da. Dekretu horren bidez, zenbait zerga direla-eta atxikipenen eta konturako sarreren menpe dauden errentei buruzko 193 eta 194 ereduak onartzen dituen abenduaren 14ko 149/1999 Foru Dekretua aldatzen da.

Zenbait huts egin dira 2008ko abenduaren 4ko ALHAOn (2. zenbakia) argitaratu zen 8.804 zenbakiko iragarkian, ez baitira osorik editatu 193 eta 194 ereduak. Beraz, zuzendu egingo dira ondoren:

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 7a.- Administrazio Kudeaketa Zerbitzuaren Burua, EMILIO ORTIZ PALACIOS.

El otorgamiento del visado con carácter provisional no impedirá la posterior comprobación administrativa de la autoliquidación en todos sus elementos.

3. Para efectuar la matriculación definitiva del medio de transporte, deberá acreditarse el pago del Impuesto o, en su caso, el reconocimiento de la no sujeción o de la exención."

Cuatro. Quedan derogados los apartados 2 y 3 de la Disposición Transitoria Segunda, eliminándose del apartado 1, precisamente la referencia a "1".

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Con efectos desde el 1 de enero de 2008 queda derogado el artículo 3 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 17/1997, de 28 de octubre, por el que se incorporan a la normativa fiscal alavesa las medidas contenidas en la Ley 39/1997, de 8 de octubre, por la que se aprueba el Programa PREVER.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos según lo previsto en su articulado.

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2007.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

64

Corrección de erratas del anuncio núm. 8.804 relativo al Decreto Foral 78/2007, del Consejo de Diputados de 20 de diciembre, que modifica el Decreto Foral 149/1999, de 14 de diciembre, que aprobó los modelos 193 y 194 sobre rentas sujetas a retención e ingresos a cuenta por diversos impuestos.

Advertidas erratas en el anuncio núm. 8.804 publicado en el BOTHA núm. 2 de fecha 4 de enero de 2008, al editarse incompletos los modelos 193 y 194, se procede a efectuar las oportunas rectificaciones:

Vitoria-Gasteiz, a 7 de enero de 2008.- El Jefe del Servicio de Gestión Administrativa, EMILIO ORTIZ PALACIOS.